

## **Pilotaren hazia**

*Euskaldunon Egunkaria, 1994-09-27: 2.*

Pilota jokoa euskal jatorrizkoa da, eta hala deitzen diote "eusko pilota" non-nahi. Ameriketara bereziki. Hara Iparraldean jokatu berria den XII. Mundu Txapelketan parte hartu duten herriak kasu. Hasieran pilotari profesionalen bidez, enpresak eta apustuak medio, zabaldu zen munduan zehar, baina Ameriketako herrietan, Argentina, Mexiko eta Venezuelara batez ere, gerra ondoren joandako exiliatuak eragin handia izan zuten. Venezuelako lekukotasuna eman nezake gorakada nolakoa izan zen adierazteko, gure tradizio zentzuak iraunarazi baitu gure nortasuna non-nahi. Euskal exiliatuak aurkitu zuten lehen babes handia Caracas izan zen. Velazquez a Cipreses kalean behe-gaineko txiki bat zen, eta zerbait falta, eta handiagoaren bila hasi ziren. Bigarren egoitza, Tracabordo a Miguelacho kalean, ez zen askoz handiago, baina atzekaldean bazuen errekatxo batera iristen zen amildegitxo bat, eta bertan frontoi bat ikusi zuen irudimen handiarekin norbaitek; betelan neketsu bat egin eta han iraun zuen frontoi txiki hark, igande arratsaldeetako norgehiagokak eta garagardoa neurri zenean, lehenengo ametsa frontoia izan zen eta halaxe jaso genuen 45 metro luzeko ederra. 1950ean, Agirre lehendakaria, Jesus Galindez eta Joxe Rezola lagun zituela. Hala lortu ziren gure joko nagusia, pilota, eta gure agintari politika gizonen lehialtasuna agirian zuten tradizioa.